

EKOIZPEN ESPAZIOAK

I. Ekoizpen espazioen bilakaera

Problematika

Zer, non eta nola ekoizten da Euskal Herrian?

① Ipar Euskal Herriko ekoizpen espazioak



Lehen, jende gehiena laborantzaz bizi zen, nahiz aspalditik turismoak ere toki handia duen Ipar Euskal Herriko ekonomian. Orain enpleguen % 70 zerbitzuei dagozkie; tradizio eta berrikuntzaren arteko ekonomia garatzen ari da;

2021 Euskal Elkargoa

③ Euskal Herriaren erakargarritasuna

Akitania Berria eskualdean eta Euroaskualdean dago Euskal Hirigune Elkargoa. Pirinioetatik hurbil, naturgune nabarmenez eta Ozeano Atlantikoaz inguratua. Egoera pribilegiatua du bi estaturen arteko eta mugaz gaindiko ardatz ekonomikoen bidegurutzean. Bizi kalitateak eta lurraldeak berak erakargarri egiten laguntzen dute.

Salgaien garraiatzeko, lehen mailako azpiegiturak ditu (Baionako portua, Miarritzeko aireportua, AHT geltokiak...). Enpresa handiak ditu, hala nola Dassault Aviation (1.000 langile baino gehiago) eta Technoflex. Lau teknogune baditu Aerospace Valley bezalako lehiakortasun poloetan edo beste motako klusterretan integraturik. Lurraldeak baditu, halaber, laguntza-egitura ugari (Herrikoa, Andere Nahia...) eta goi-mailako irakaskuntzakoak eta ikerketakoak (UPPA, ESTIA...).

2021 Euskal Elkargoa


Xerka ezazu!

1. **1. eta 3. dok.:** Zer dira Euskal Herriko jarduera ekonomiko nagusiak? Betidanik hala izan ote da?
2. **2.dok.:** Deskriba ezazu Ipar Euskal Herriko enpresen eta enpleguaren banaketa.
3. **3.dok.:** Zerk egiten du Euskal Herria erakargarri?

Jakin ezazu

Ekoizpen espazioak jarduera ekonomikoetarako egokitzen eta balioztatzen diren eremuak dira, hala nola laborantza, industria eta zerbitzu espazioak.

② Lurraldea eta ekonomia





II. Industria espazioak

Problematika

Nola antolatzen dira industria-ekoizpen espazioak?

Aeronautika

① Aerospace Valley




Aerospace Valley, fort de 840 membres, est le plus imposant des 55 pôles de compétitivité créés dans l'Hexagone en 2005. Il est le premier pôle de compétitivité européen articulé autour des filières aéronautiques, spatiales et drones. (...) Son territoire s'étend en Nouvelle-Aquitaine, en Occitanie et à la marge en Pyrénées Méditerranée.

Sud-Ouest 2016

Jakin ezazu

Frantzia, **lehiakortasun poloa** enpresen (ttipi, ertain edo handi) ikerketa-laborategien eta ikasketa-zentroen elkarketa da, lurralde zehatz batean eta ekoizpen arlo bati buruzkoa. Dinamika ekonomiko hori sustatzen dute estatuko eta tokiko erakundeek (publikoek zein pribatuak).

② Airbus proiektua



2024/05/24 Le Parisien

Airbus Europako proiektua Bigarren Mundu Gerlaz geroztik Estatu Batuetako industria aeronautikoak munduan zuen nagusigoari buru egiteko sortu zen. A320 munduko hegazkin komertzial salduena da, lehiakide duen AEBko Boeing 737ari nagusituz. Partzuer nagusiak Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Espainia dira. Teknologian aitzindari da SCAF deitu Europako defentsa programari esker.

2024 Airbus

③ Dassault hegazkin fabrikatzailea



Dassault Aviation hegazkinen fabrikatzailea, armadako hornitzailearik handiena da, Estatu Batuez gain, produktu militarrek mundu guzira esportatzen dituen enpresa aeroespazial bakarretakoa.

Dassault

④ Lauak Hazparneko enpresa



Airbusek Lauak Taldeari berriki eman dio *Award Outstanding Industrial Support* Saria.

Lauak 2024/12/16a

Hegazkinetako galdaragintzan eta txapan espezialista den Lauak Taldeak adar bat sortu du Indian, Airbus proiektuaren barnean. Alabaina, 500 hegazkin ekoiztu behar dituzte 2030 eta 2035 artean. Indiako fabrika Lauak taldeak mundu osoan dituen fabriketarik zazpigarrena izanen da, Frantzia, Portugal, Mexiko eta Kanadako ondotik. Euskal Herriko baserrialdean sortu zen Lauak enpresa, 1975ean lau bazkidek tailer bat egin zutelarik, Dassault zutela lehen bezeroa.

Le Monde 2024/10/30a

Baionako teknogunea

① Baionako teknogunea



Geografiako hiztegia erabil eta ahoz adieraz!

1. Baionako teknogunearen aurkezpen fitxa bat presta ezazu: kokapena, historia, ingurune naturala, helburuak, eragileak, osaketa...
2. Zure aurkezpen fitxa erabiliz, irratiko podcasta bat graba ezazu. Helburua: ekonomia emankizun baten bidez enpresariak konbenzitzea beren enpresak Baionako teknogunean kokatzea.



L'Usine nouvelle 2024

② Plataforma teknologikoa

ESTIA ingeniartza eskolako ikasleak hegazkin arinendako karbonogabeko propulsio frogak egiten ari teknoguneako plataforma teknologikoan.



Baionako teknogunea, Euskal Hirigune Elkargoak 2009an sortua, 30 bat enpresa eta 400 lanpostu biltzen ditu. Robotikan, material aitzinatuetan eta aeronautikan espezializatua da. Baionako teknoguneak Aerospace Valley lehiakortasun poloaren ziurtagiria du. Besteak beste, mintegi bat eta hotel korporatibo bat baditu. Ekosistema horren barnean, ikerketa eta berrikuntza-tresna partekatuak erabiltzen dituzte.

[Baionako Teknogunea 2023](#)

③ Elkar mugaz gairikoa enpresa



Elkar mekanika ingeniartzan eta metrologia industrian trebatu enpresa da.

Arlo horretako enpresa gehienak bezala, Maulen sortu zenean aeronautikari lotua zen bereziki. Gaur egun ekoizpen alor gehiago du, eta gune bana ireki Baionako teknogunean eta Ordizian (Gipuzkoan).

[Elkar](#)

Jakin ezazu

Tknogunea leku berean kokatu teknologia industria multzoa da. Helburu nagusia tokiko industriaren sustatzea da, puntako teknologia garatuz eta formakuntza, ikerketa eta industria elkarri hurbiltzeko.

Bertan, enpresek lekuak eta baliabideak partekatzen dituzte, hala nola **plataforma teknologikoak**.

Enpresa gazteen laguntzeko eta garatzeko, **enpresa-mintegie** (pépinières d'entreprises) hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte: egoitzak (hôtel d'entreprises), azpiegitura partekatuak, kudeaketako laguntza...

AA Adimen artifiziala giza adimenaren simulatzeko gai diren makinaren egiteko teorien eta tekniken multzoa da.

[CCI](#)

④ Industria berritzailea




AA garaian ekoiztea formakuntza Dihnmatic-ek antolatuta du, Europar Batasunaren eta Akitania Berriko Eskualdearen laguntzarekin. Enpresa ttipiak eta ertainak (PME) Dihnmatic teknologia digital aitzinatuan formatzeko eta laguntzeko proiektua da.

[AA Ikas-gela](#)

Izarbel teknogunea

① Izarbel teknogunea



Xerka ezazu!

1. Izarbelen kokapen, irisgarritasuna eta orohar erakargarritasuna azal ezazu.
2. Izarbel teknopolaren osagaiak azal itzazu.
3. *Hupi* enpresa aurkez ezazu: jarduera, baloreak eta kokapena.
4. Txosteneko informazioak erabiliz, gutun bat idatz iezaiozu Parisko gazte bati, ESTIA ingenieritza eskolara etor dadin konbentzitzeko.

➡ ESTIA ingenieritza eskolak berrikuntzari buruz antolatu jardunaldiaren argazkia eta Ate irekitzeen afixa.

👉 Berrikuntzaren 24 ordu



Jakin ezazu

Izarbel Bidarteko teknogunea da, teknologia digitalean berezitua. 15 hektareako eremuan, 110 enpresak (1.000 langile baino gehiago), ESTIA ingeniaritza eskolak (1.100 ikasle), hiru laborategik, inkubagailu batek, bi enpresa-mintegik, hiru enpresa-hotelek, enpresa-hautzaindegi batek, denak bat eraikinetan bilduak, dute *Izarbel* teknogunea osatzen.

②

Enpresa berritzaileak

👉 Bai eusk.Euskal irratia



Adimen artifizialean espezializatu enpresa da Hupi. Bidarten sortu zen 2013an, eta 2018tik ordezkaritza badu Donostian ere. Gaur egun 14 lagunek egiten dute lan bertan eta Euskal Herri osoko enpresak dituzte bezero.

Hupi ez da beste enpresa teknologikoak bezalakoa. Hurbileko enpresa izanik, balio sozial sendo berak dituzten pertsonak osatzen dute. Halaber, balio berak dituzten lurraldeko egitura anitzekin ari da, hala nola Euskal Herriko Laborantza Ganbara eta Enargia. Bai Euskarari saria eskuratu zuen 2023an.

👉 Hupi.eus

③


ESTIA ingenieritza eskola



III. Laborantzaren erronka

Problematika

Nola eraldatu dira laborantzako eremuak?



① Ipar Euskal Herriko hazkuntza eta laborantza



Laborantza garrantzi handiko jarduera da Ipar Euskal Herrian; kasik 4.500* etxalde dira eta 8.500 pertsona baino gehiagok laborantzaren lan egiten dute. Lurralde osoan hedatua da eta batzuetan ekonomia jarduera nagusia da. Hazkuntza da jarduera nagusia, batez ere esnetako ardiak eta haragitariko behiak.

Ipar Euskal Herriko laborantza Frantzia mailan egiten denetik bereizten da, bereziki hazkuntzari dagokionez (ardi eta behi), parte handiengan belarrez bazkatzen baitira (pentze eta mendi erabilera), eta beraz pentzeek laborantza eremuen % 90 hartzen dituzte.

Ipar Euskal Herriaren berezitasun horrek eraginik badu ingurumenean (...). Ingurumen kalitate horren erakusle da euskal mendiaren eremua.

*2024an 3800 etxalde dira (EHLG)
2021 Euskal elkargoa

② Laborantza industrialia

Herrikoia ez den laborantzaren ezaugarri nagusiak hazkuntza industrialia eta monolaborantza dira. Ondorio larriak ditu ingurumenean eta animalien ongizatean (...).



Eztabaidaezina da laborantza industrializazioari esker emaitza sendoak lortu direla produktibitatearen arloan, eta munduko ekoizpenak nabarmen egin duela gora, baina kostu ekologiko eta sozialak handiegiak dira.

[wikipedia](https://en.wikipedia.org/wiki/Industrial_farming)




⑤ Laborantzaren erronka

Etxalde ttipien instalatzeko laguntzen bidez, Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeko etxalde ttipien atxikitze eta zabaltzen laguntzeko borondatea agertu du. Izan ere, etxalde ttipiak lurraldeko etxaldearen % 40 dira (...).



Hala ere, haien ahuleziak ezagunak dira eta ezin izan da saihestu Ipar Euskal Herrian 2010 eta 2020 artean gertatu den etxalde ttipien % 23ren desagertzea. Joera hori aldatzen entseatzeko gisan, Elkargoak 3.000 €-ko laguntza bozkatu zuen etxalde ttipi horien sostengatzeko lehen baliabide gisa.


2024 Euskal Elkargoa



③ Laborantzaren sustengatzeko laguntzak

➡ Euskal nekazaritzak erronka handiei buru egin behar die, besteak beste etxaldean kopuruaren ttipitzeari, lurraren prezioaren presioari eta laborarien zahartzeari. Hala ere, kalitatezko elikaduraren zerbitzuko den eredu berri bat eraikitzen ari da, berrikuntza, ekoizleen bidezko ordainsaria eta baliabideen zaintza uztartuz. Euskal Elkargoak konpromiso sendoa hartu du nekazaritzaren balioztatzeko eta nekazaritzako elikagaien alorraren laguntzeko.

👉 [2024 AOP](#)



Mahastigile baten lekukotasuna

Zer ekartzen dio sormarkak Irulegiko arnori?

Sormarkarik ez balitz izan, ene ustez, arnorik ez zen izanen hemen. Egun sormarkak komunikazio indar bat ekartzen du, promozio kolektiboa da.

Irulegi ainitz lekutan ezagutua da eta kanpoko apelazione batzuk jelos dira. Babesa ekartzen du eremuaren aldetik ere, ezagupena egiteko manerari buruz, kalitateari buruz, araudiak zehaztuz. Denak konziente gira sormarka ttipi baten geroaren segurtatzeko, bide bakarra kalitatea dela eta ez kantitatea.

Gexan Costera Baigorriko arnogilea Amezitia etxaldean

[Kazeta.eus 2021/02/5a](#)




Xerka ezazu!

1. Dokumentuen informazioa kontuan hartuz, zerrenda itzazu Euskal Herriko laborantzako espazioen eraldaketaren bost ezaugarri.
2. Zer arazo sortzen du laborantza industrialak?
3. Zein dira Euskal Herriko laborarien kezka nagusiak?
4. Zer dira laborarien laguntzeko proposamenak? Nor dira eragileak?

Eskemen eraikitzea:

Eskema bat eraiki ezazu gaur egungo laborantzaz, bildu informazioei esker: eraldaketa nagusiak, arazo edo erronkak, laguntzeko proposamenak, eragileak.



Jakin ezazu

Euskal kalitatea erakustez gain, Ossau Iraty, Ezpeletako biperra, Irulegi eta Kintoa **AOP markak** agerian ezartzen dute euskal elikagaien sektoreak ekonomian duen pisua. Sormarken bidez Europar Batasunak toki batzuen ekoizpena, ekoizteko manera eta ekoizleak babesten ditu.

Laborariek berek etxaldeko ekoizpenari balioa ematen diote **IDOKI** bezalako proiektuei esker.

[Idoki](#)



④ Laborarien borroka



➡ 2005ean sortu zen Euskal Herriko Laborantza Ganbara. Laborantza eta laborarien gerizaren eta tokiko garapenaren alde.



[Laborantza ganbara](#)

➡ Hegazti gripearen murrizteko gobernauk hartu neurrien kontrako manifestaldia 2023an Donapaulen, ELB sindikatuak antolatutik.



**EUSKAL HERRIKO
LABORANTZA GANBARA**

**Laborantza herrikoia eta
iraunkorraren alde,
Euskal Herrian**




Euskal Herriko Laborantza Ganbara
Zuentzat
64220 AINIZA MONJOLOSE
Tel : 05 59 37 18 82
laborantza.ganbara@ehlgbai.org
www.ehlgbai.org

IV. Euskal Herria, gune turistikoa

Problematika

Zer da turismoaren eragina lurraldean?

① Ipar Euskal Herriko turismoa



Le cluster du tourisme



② Turismoaren garrantzia


Le Pays Basque est la 2ème destination française la plus attractive pour les Français, derrière la Bretagne et devant la Corse. Deux stations balnéaires sont classées dans le top 25 des stations littorales préférées des Français (Biarritz n°2 et Saint-Jean-de-Luz n°11). Une simple recherche sur Google avec le mot clé « Pays Basque » donne plus de 60M de résultats, 6 millions pour « Euskal Herria », 91 millions à « Pais Vasco », 136M à « Basque Country »...

Euskal Elkargoa 2023


③ Turisten jatorria



Turistak Donibane Garaziko karriketan.



Hego Euskal Herriko jatorriko turistak.



Ipar Euskal Herriko turistak jatorria.

④ Turismoaren gehiegikeriaren ondorioak

Turisten kontzentrazio handiegia tokiko jendearen haserre sortzen du, laneratzeko ibilbideak trabatuak edo zerbitzuak gaitzeska hartuak direlako. (...) Ingurumenak ere jendearen kopuru handiaz sufritzen du. Hondarkinak eta ur zikinak metatzen dira eta bizpahiru hilabetez errezebitzen den turista saldo handiarentzat eraiki behar diren azpiegiturak urte guzian hor bizi direnek ordaintzen dituzte.

Beste ondorio latza eta orokorra da prezioen goratzea. (...) Saltzaile bakar batzuen onerako, baina gehienek kalterako, bereziki urte guzian hor bizi direnentzat. Eguneroko erosketetan neurtzen da prezioen emendioa, bai eta ere bizitegien ordainsarian. (...) Airbnb bezalako plataformek, azken urteetako urteak, modelo ekonomiko jasanezineko helmugara eramanez.

Fenomeno hori toki guzietara hedatu da, izan Kanarietan, Venezian, Bartzelonan, Londresen, Donostian ala Ipar Euskal Herrian.

Herria 2024



Donostiako gazteek «gutxi batzuei bakarrik mesede egiten dien» turismo ereduaren aurka egin zuten manifestazioa 2017an, "Zuen turismoa, gazteon miseria" lelopean.

⑤ Turismo iraunkorraren desafioa



Idatziz adieraztea

- Testu egituratu bat idatz Euskal Herriko turismoari buruz.
- Testua idatzi aitzin, turismoaren ezaugarriak, abantailak, arazoak eta erronkak identifika itzazu.
- Ez ahantz azaltzea eragileak nor diren eta zer egiten duten.

2023an, arduratsuagoa izanen den eta lurraldea errespetatuko duen Ipar Euskal Herriko turismoaren aldeko estrategia plantan eman da. Ipar Euskal Herriko Klima Planaren ildotik eta beste politika publikoekin antolatutako, profesionalak turismo jardueren aldaketan laguntzea, biztanleei bizi baldintza onak bermatzea eta jendea turismo denboralditik kanpo eta lurralde osora etorerraraztea ditu xede. Erronka horiei buru egiteko, lurraldeko eragileak federatzen dituen gobernantza ezinbestekoa da.

Jarduera txostena Euskal Elkargoa 2023

V. Perspektiban ezartzea

①


Frantziako eta Euskal Herriko ekonomia

2023an, Frantzia munduko 7. potentzia ekonomikoa da, eta Europako 3.a, Alemaniaren eta Erresuma Batuen gibeletik. Frantziak Inbertitzen du eta enpresa anitz erakartzen bertan kokatzeko edo kontzeptu berritzaileak garatzeko. Erreferentea da hainbat arlotan: autogintza, nekazaritzako elikagaiak, banaketa handia, moda, luxua, kosmetika, industria aeroespaziala, elektronika, aeronautika edo artisautza ditu sektore nagusiak. Alors aeroespazialean, zenbait enpresa, *Dassault Aviation*, *Airbus* edo *Safran* bezalakoek, munduko lehian parte hartzen dute. Frantzia oso dinamikoa da nekazaritza eta manufaktura-jardueretan ere. Euskal Herrian nekazaritzako elikagaien sektore ospetsu batzuk daude, hala nola haragia, esnea, gozogintza eta arraina.

2023 CCI

②

Frantziako ekoizpen espazioak



Ezagutu behar diren hitzak:

- **Kluster ekonomikoa:** sektore bereko enpresa elkarteak.
- **Zerbitzuak:** materialik ekoizten ez duten aktibitate ekonomikoak (merkataritza, garraioak, medikuntza, turismoa, ikerketa, irakaskuntza)...
- **Ekonomiaren tertziarizazioa:** ekonomia zerbitzu eta ikerketari buruz bihurtzea.
- **Eragileak (les acteurs):** lurralde antolaketako proiektuen sustatzaileak (erabakiak hartuz eta diruztatuz). Eragileak pribatuak edo publikoak izan daitezke.
- **Irisgarritasuna:** eremu batera heltzea ahalbidetzen duten azpiegituren multzoa.

Gaitasunak

- Dokumentu azterketa
- Adierazpide desberdinen erabiltzea: eskemak, testuak...

PROGRAMETAN
1. gaia
Gaurko Frantziaren
lurralde dinamikak
2- Ekoizpen espazioak
eta horien garapena.